IRALLA
28
Larunbata

Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA			
Bilbao'kua	9,00 Irko. iru ilez		
Bilbao'atazkua..	11,25	"	"
Idazki-Itunmena	62,00	"	urtez
Atzarrijetakuak	112,50	"	"

Beldayen itunduba

XXIII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.101 zenbakija

Gayak

Itzaldi ederra

Bilbao'ko Nikola Deuna'ren eŕtxadonak, itzaldijak-eta egiteko areto edeŕ bat dau.

Eta igazi dan egubenian, itzaldijak egiteko-ta egin ixan daben areto edeŕ a, notiñez bete-bete eginda ikusi zan.

Egun aretako izlarija, Onaindia'taŕ Alberta jaupari ezaguna baxen ospatsuba ixan zan.

Itzaldi a egiteko agindu ixan eutsenak, baŕiz, Kosma ta Damen deunen anaidiko osatzaliak.

Osatzaliok, eletarijari, itzaldijaren gaya eurak emon eutsen. Gayau oraingo jayotza-uŕitasuna ta kistaŕ zileistilari edo moralisten ustia ageŕtuteko zan.

Eta Onaindia'taŕ Alberta eletari gaste ta jakintsubak, gai au, azaltzeko gatxa baxen latza danaŕen, argi be argi atzaldu eban.

Itzaldi a baña, osatzalientzat bakaŕik oguzten ebala esan eban, eta izpaŕingijetan-eta ageŕtzerik ezebala gura, izpaŕingijetan irakuŕten ebenak, olango gai uleŕkatxak, geyenetan okeŕetara uleŕtuten ebezela-ta.

Beraz, eletarijak esan ebazan gauza jakingaŕijetatik ezertxu be eztogu emen esango, eŕdeldunentzat uleŕkatxak diran gayak, euzkeldunentzat eŕezaguak eztira ixango-ta.

Emen esango doguna ezta, ba, besterik ixango, entzule-pilo edeŕa ixan ebala baño. Pilo edeŕa, ta jakintsubak ganera, entzulerik geyenak osatzaliak ixan ziran -eta.

Onaindia eletari jayuari, bere itzaldija amaitu ebanian, txaluak-txalo jo eutsezan.

Aŕospide'taŕ Jon osatzale gastia baxen ospetsuba be an ixan zan. Eta aren aburuz, Onaindia'taŕ Alberta'ren itzaldija, ikasbide edeŕetako itzaldi sakona ixan zan.

—Itz ondo egiñaz gauzak edeŕto esatia orixe da—Jon'ak esan eban.

Euzko-Gastedija'n

Bilbao'ko Euzko-Gastedija'n gauŕ gabeko zortziretan, Mikel Deuna'ren auŕeguna dala-ta, areto nausijan itzaldi edeŕ bat ixango da.

Itzaldi onetako eletarija, Montevideo'ko "Euzkal-Ordua" aldizkingi edeŕaren aŕtezkarija dan Garcia-Quevedo'taŕ Eŕoberta idazle aipatuba ixango da, ta euzkotaŕak Uruguay'ko jakintza gauzetara eruan ixan daben jakintza-aliatzaz iñarduko da.

Itzaldijaren amayan, Gastedi'ko txistuarijak eta abaŕ, euzko-eresi entzungaŕijak joko dabez.

Gauŕ gabeko zortziretan Bibao'ko Euzko-Gastedi'ra ldutxu bat egin garik etzateez geratu, irakuŕe.

Emakume Abertzale -Batza

Bilbao'ko Emakume Abeŕtzale-Batza'ko emakume zolijak igituten asi dira. Datoŕen uŕilan 11'gaŕenerako areto nausijan ixango dabezan jayen egitaraba iragaŕi dabe.

Egun ori, Begoña'ko Ama Neskutza'ren jayeguna dala diñue, ta Begoña'ko Ama, euren Zaindarija dala.

1935-1936'arterako ikastaruai asikerea emoteko egun ori autu dabe. Ona emen irakatsiko dabezan gayak:

Lenengo, bigaŕen eta irugaŕen ikastaroko euzkera-ikaskixunak.

Euzko-abestijak.

Sukaldaritza edo jakijak gertetia.

Soñekuak ebagi ta josten.

Maŕeztuten edo dibujetan.

Gexo-zaintza.

Idazlastaŕa edo taquigrafía. (Lenengua ta bigaŕen ikastaruak).

Zenbakintza edo contabilidadia. (Lenengua ta bigaŕen ikastarua).

Asmo edeŕak benetan Bilbao'ko Emakume Abeŕtzale-Batza'ko emakume zintzuak agertuten dauskubezan asmo oneik.

Abeŕija egiteko berau baño bide obarik eztogu bilatuko. Zorijonak, eta jaŕaitu.

Bilbao'ko Euzko-Gastedija'n be, entzun dogunez, euzkera-elezko ikastaruak beriala asiko dira.

Ikastaro onetako irakasle bat, "Abeletxe" euzkel-idazle trebia ixango dala entzun dogu, ta ikastaroko ikaskixunak euzkeraz atzalduko dabezala.

Asmo txalogaŕija orixe: ikasliai ikasi biaŕ daben elez ikaskixunak atzaldutia lakorik, ezebez.

Ia, ba, gustijonaŕte, iltzaŕ daguan geure euzkera gaxua ilobi-atetik ataraten dogun, ele edo izkuntza bako abeŕijan bixitekotan, ilobirantz duan abeŕi-ele matiaz batera ilobira jastia bape txaŕago ezta-ta.

"Fuzkeldun jayo nintzan,
euzkeldun naz, azi.
Euzkera utsik amak
eustan irakatsi.
Euzkera matia zu,
zaude nigaz beti.
¡Euzkera il ezkero
eztot gura bizi!"

Ona emen euzko-oleŕkari zaŕak zer diñuan: Euzkera il ezkero, eztabela bixi gura.

¡Oleŕkari abeŕtzale oŕen eretxikuak gustijok ba'giñaz!

Ikastetxe nausijan be bai

Bilbao'ko aldundijak ordainduta uri onetako ikastola nausijan ixaten diran ikastaruak be, datoŕen ilan lenenguan asiko dira.

Ikastaro oŕetarako biaŕekua dan ixenpetzia ila onen 30'raŕte ezeren eragozpen barik egin leike.

Ikastaro onetako irakasliak onixek dira: Aŕutza'taŕ Mikel, Altuna'taŕ Joseba ta Agiŕe'taŕ Toma.

Lenengo ikastarua Aŕutza'ren gain ixango da, ta gabeko 8'tik 9'ratziretaŕte irakatsiko dau.

Bigaŕena Altuna'ren gain dago, ta 7 'tatik 8'rataŕte irakatsiko dau.

Irugaŕena, baŕiz, Agiŕe'ren ardurapian egongo da, ta 8'ratatik 9'rakaŕte irakatsiko dau onek be.

Ikasi, ba, mutilak, bai dago biaŕixana be-ta.

Ondiño eztogu amaitu

Sabin-Etxia'n be euzkeraz irakatsiko dabela diñoskube, ta ondiño urte askorik eztirala ikasle ixaniko mutil zuŕak irakatsiko dabela.

Orj auŕerakada aundija da, irakuŕle: igazko ikasliak aurtengo irakasle... Oneik gauza gustijak txalogaŕijak dira, ta txaluak-txalo joten dautseguez.

Baña ondiño txalo geyago be jo gura geunkez... Txaidian euzkeraz diñardubenai jo gura geunskijuez txaluak. Batzokijetan, salokijetan eta leku gustijetan euzkeraz ekiten dautsenai...

Orainguan euzkeraz ikasten ezpa-dogu, ikasteko erarik eztogulako ezta ixango... ¡Ez orixe!

URIBIŤAŔTE'TAŔ IBON.

Euzkotar Umien Aldez

Irakasle anderaño:

"Aspeŕkeria da, gure ikastoletatik aŕika baŕa ere atera beaŕ degun etsaya.—M. Montessori.

Idazlari batek auxe esan du asperkeriari buruz: "Beste gizon danetatik ugartetuta, espetxe batean bakaŕ-bakaŕik dagoan gizon batek, bere burua, bere gogoa era onean euki al izango ditu zerbaiteri ekiten ba'dio, zerbait ikasi nai ba'du, zer edo zer laneri jaŕaitzen ba'dio... Baña nor bere burua geldikerira epaitzen duana bizirik lurpean saŕtua dago. Lurpean dauden ilak bakean daude; orduak eurenganа eldu gabe igarotzen dira, eunki bat, gizaldi bat unetxo bat baño ez da eurentzat. Baña bizirik egon eta urpean seŕaldoan gordeta, nor bere buruari ilda dagoala igertzea ta iriztea, ezer eza eta ustelkeriaren aŕtean bizirik egotea, ori bai dala ituna! ori bai dala laŕia! ori bai dala ikaratzekoa! Oñaze oŕetantxe ondatzen ditu asperkeriak ezer egin gabe egoten oitu diranak".

Irakasle andereño: uxatu egizu zeure ikastolatik asperkeria; zure ikastolan dauden bitaŕtean zure umeak ez ditezela aspertu; euki egizuz beti lanean, beti zerbait egiten.

Oitu egizuz euren eskuagaz eta euren begiakaz beti zerbaiti ekiten.

Lagun asko daude ludi onetan begiak zertarako diran ez dakitenak; gauza bat auŕean euki aŕen eta begiak zabalik ikusten ez dutenak.

Geure baratzako eŕitxo bati, lore bati, txinduŕi bati begira orduak eta orduak igaroko ginduzke aspertu gabe, baldin txikitan geure irakaslariak "begiratzen" erakutzi ba'ziguten.

Beste gauza bat. Ez dijuakizu ondo egiten dezun bezin goitik ikastolan itz egitea ere.

Gogoŕ itz egitiaz zeure estaŕia ta zeure umien belaŕiak nekatzea besterik ez dezu egiten. A, bai, zeure buruari aginpidea kentzea.

Deadarka itz egitea, agintzen ez dakitenak egin oidute, eta gofari bakaŕik datorkiote ondo. Beaŕ bezela agintzen dakitenak, beti berdin itz egiten dute eta deadarka iñoiz ez.

Talma, France'ko anzezlari aundiak esan zuan, antzokian, agintarien paperak egin beaŕ zituanean gogoŕ xamaŕ itz egiteko oitura zuala lenengotan, bakaldunak, jaurlariak eta onelakoak goitik izan ezik etzutela itzik egingo uste zualako.

Baña lenengo Napoleon'ek deituta bere jauregian izan zanean konturatu zan Napoleon'ek bere menpekoa batere deadaŕ gabe, batere oŕoa gabe, eta batere eŕemuskada gabe agintzen ziotela. Auŕerantzean gogoan izan zuan antzokian eŕegeak eta antzeztu beaŕ izaten zituanean.

Agindu ezazu ba benetan, deadaŕ gabe, eta bein bakaŕik. Gauza bat egin erasoteko askotan agindu beaŕ izatea ez dezu irakasle onaren ezaugaŕia.

Irakasle batzueri entzungo diozu iñoiz: "Baña, zenbat bideŕ esan beaŕ ete det gauza bat egin dezazuten?" Erantzun zenkioe: "Bein esanaz bakaŕik agindua egiteko oiturarik zeure umeeri sortu ez diozulako dezu ori".

Umeak geyenetan onak dira, eta irakasle onak esandakoak eta agindutakoak egiteko pozik egon oi dira. Ezagutu izango dituzu, ikastolan guztiz on eta esangiñak diran umeak, beren etxeetan esanik egin nai izatean, ez dutenak.

Bere irakasleak ondo eta bere gurasoak gaizki agintzen diotelako da ori.

Nere ikastola batean nuan umerik esangiñena ta begikoena, eŕi osoan bere etxean okeŕa zala esaten zutena zan. Egun batean galde nion ia izekori zegaitik esanak egiten ez zizkion eta auxe erantzun ziran: "Bai, gure izekori zer agintzen duan nork igeŕi? Beti dago ba aseŕeka ta deadarka ta."

(Daŕaike.)

AŔITOKIETA.

MUNGIA

Mikel deuna, Euzko-Alderdi Jeltzalia 'ren Zaindarijaren eguna aundikiro ospatuteko jai berezijak antolatu dabez Mungia'ko Emakume Abeŕtzale - Batza eta Euzko-Gastedija'k. Ara emen egitarauba:

Ila onen 29'gaŕenian, goxako zortziretan, Miren Deuna'ren eŕtxadonean, jaupea ta Jaunaŕtzia. Itzaldija egingo dau Eulogi Aba Karmeldaŕak.

Aŕatsaldeko seirak eta erdijetan apari -askarija.

Gabeko zortzirak eta erdijetan Euzko -jayaldija. Gastetxubak eta Poxpoliñakin. Jai oneik ikuskaŕijak ixango dira abesti lirain, dantzaketa txukunak eta abaŕ egingo dabezalako geure mutiko-neskatil matiak.

¡Guda zitala!

Negaŕez dago, etxe txokoan,
"Gaztañazpi"-ko ama gaxoa...
Atzo goizean kendu diote
Bere semetxo biotzekoa...

Negaŕez dago, uŕun begira,
"Laŕamendi"-ko neska maitea...
Orain ez da len bezela igotzen
Goiko ituŕira mutil gaztea...

¿Nork zatitu du oŕen gogorki
Emakume zar berdin-gabea?
¿Nork zimeldu du udabeŕian
Landa alaieko lore usaikia?

✣ ✣ ✣

Notin txar,
Gaiztoa,
¡Biotzik gabekoa!
Begi beltz-aundiduna,
Gozetien laguna...
Buŕuka
Zalea,
Eŕukirik gabea:

Artu dek
Gaztea,
Amatxoren semea...
Bidaldu dek gudatz,
Gizon onak iltzera;
Eta i, oŕ,
Etxean,
Gelditu aiz oiean.

¿Buŕuka
Nai aldek?
Legez ik yun bear dek,
Eta iñor ez bidali
Ire indaŕaz gudari...
¡Bilaua,
Gaiztoa,
Gogo txar-txaŕekoa!...

¿Ez dituk
Ikusten
Biotzak erdibitzen,
Gizonak alkaŕ iltzen,
Eta-eŕiak austen?
¡Ez dek ez
Ikusten
Ire odola ixurtzen!

¿Ez dituk
Ikusten
Ama gaxoak mintzen,
Neska politak urtzen,
Eta aitak ere erotzen?
¡Ez dek ez
Ikusten
Ire semea amaitzen!

Besteren
Samiña,
Iretzat gauz-ariña.
¡Oi, gazteen odola!...
Ta iri ez dik axola...
¡Gizon beltz,
Idoŕa...
Biotza dek gogoŕa!

Elduko
Dek ire
Azken ordua ere,
Ta ire eriotzagatik
Iñork ere ez negaŕik...
Geldi zak
Gaur, guda,
Eta egintzak gentza;
Beztela
Bigar, i,
¡Oi zeñen estu, laŕi!...

Negaŕez dago, etxe txokoan.
"Gaztañazpi"-ko ama gaxoa...
Atzo goizean, gudan il zaio,
Bere semetxo biotzekoa...

Negaŕez dago, gelan gorde-ta.
"Laŕamendi"-ko neska maitea...
Ez da geiago arin igoko
Goiko ituŕira, mutil gaztea...
... ...

Besteren
Samiña
Iretzat gauz-ariña...
¡Oi, gazteen odola!...
Ta iri ez dik axola...
¡¡Gizon beltz,
Idoŕa...
Biotza dek gogoŕa!!

SATARKA.

UAŔA.—Oleŕkari jayo-jayua: zeure kanta oneik poztuten dausku bijotza, baña maizago entzun gura geunkez olako txintak. Abeŕijaŕen, jaŕai.—*Lauaxeta*.

Zortzitik-Zortzirat

USOAK.—Ikusi ditugu lehen usoak. Etzoazin ez Sarako ez Etchalaŕeko alderat. Beren bidea eginen dute beraz zenbeit egun gora behera. Gure goraintziak ereman detzotela mendiz bertzalde hortako abeŕtzale anaieri...

FILOTA.—Uŕugnako plaza politean Atano IV eta Mondragones jozak eta emak arizan dire St Martin eta Sein Lapurtaŕen kontra, bainan aski aise galdu dute. Helduden igandean Etchave IV ariko baita Miaŕiatzen gure St. Martinekin buruz-buru, nihandik etzauku iduritzen irabazten ahal duela. Partidak ikustea balioko du halere.

HEŔIETAKO JAIAK.—Lekorneko jaiak dire azkenak hemen gaindi: joanden igandean izan dire. Aintzineko urtheetan baino bestaliar gutichago omen zen. Berbera gertatu da bertze heŕi guzietako jaietan ere. Dirua gutitu, alabainan!

AIRETAKOA CAMBON.—Ez dire guti haŕitu Camboaŕak joanden asteko egun batez inguruko laŕeetarat jausten ikusi dutelarik airetako hantu bat. Guadalajara'ko aintzindari batek zerabiikan: haizeak ez du utzi bere airetakoaren nahi zuen lekhuan jautsarazterat. Begitaŕte ona egin diote Cambo'n delako aintzindariari eta ez da dudarik onooko egunetan ez duela ongirik baizik eŕanen Eskualdunez...

AŔAINTZALEAK.—Ez dire hainitz ateratzen ahal izan azken egun hautan gure aŕaintzaleak: itsasoa maiz hasaŕe zen. Ateratu direnetan, ez dute kukuruku egitekorik atcheman: atuna uŕuntzen ari da eta chardina ez da oraino ageri.

IKASTEGIETARAT.—Kopetak ilhuntzen hasi zaizkote gure hauŕeri: helduten astean idekiko dire ikastegiak. Eta, futcho, oraiko mendeetan deusik ikasi gabe ezin bizi! Ikasi-eta ere badu lan bizitzeak!

IBARLAN.—Helduden igandean eginen da Ibarlako heŕian gure heŕitar handi Michel Garicoitz dohatsuaren jaia. Ez da dudarik beilari hainitz bilduko dela aintzineko urtheetan bezala. Orok othoitz eginen dute Eskual-Heŕiarentzat, Jainkoak igor detzon, Garicoitz dohatsuaren bidez, oraiko egun nahasietan behar dituen laguntza guziak...

HIL.—Beŕogoita hamabi urthetan hil da, luzez eri egonik, Elande Urdos-goity Ataratzeko eskualzale suhaŕena. Maite zituen pilota, eskual-dantzak eta Eskuara. Horien alde asko eta asko eginik joan da. Adichkide handia ginuen: ez dugu aise ahantziko. G. B.

USTARITZEN.NIgande huntan aita Hilarioren dantzaŕiak lehen aldikotz agertu dire Ustaritzen eta oro choratu dituzte. Haŕitzeko da hoin dembora gutiz hoin ongi ikas ditakeela zerbeit! Hoŕek eŕan nahi du aita Hilario irakasle ona dela. Gora kaputchin maitagaŕia! Zuri eskeŕ Ustaritze oraino ikusgaŕiago izanen da jada hain maitagaŕi zen Ustaritze, gazteek kantatu duten bezala:

Ustaritz heŕia, heŕi edeŕ maitagaŕia,
Eŕobi aldean zabal zabala da jaŕia,
Iduri izar bat zeru gain hartarik jautsia...

AROA ETA BAZTEŔA.—Ethoŕi da udazkena. Hemendik goiti aro guzietarik ikusiko dugu: goizalde freskoak: aŕatsalde beroak: haize hegoa noiz nahi hasiko da chichtuka. Bainan bere phentze pherdeen aldean iratze urheztatu edeŕekin Eskual-Heŕia sekulan baino edeŕago izanen da. Eta orai bederen guretzat izanen da Eskual-Heŕi edeŕa, Eskual-Heŕi maitea: joan dire atzeak! Eskeŕak Jainkoari...

HAUR PRODIGOA.

Deunen bixitzea

Emunda deuna, Cantebery'ko Gongotzaña

AZILA-16'GN.

Doibatza'ren aldezle gorengua, Cantorbery'ko gongotzaña eta Kisto'ren jaŕale zintzoenetarikua ixan zan Emunda deuna, England'en jayo zan, Abington eritxon eŕitxuban. Kistaŕ onak zirala bere gurasuak igaŕi daikegu, bere aŕea, ba, lekaidetxe batean il zan.

Amea, be, munduban geratu zan-aŕen, lekaime bat legetxe bixi zan eta ekandu zerutaŕak erakutsi eutsezan bere semiai. Soñai zigoŕtauteko zuŕdatzak egin eutsoezan semiai eta girin txaŕak esitzeko bidiak emon-ostian, ikastetxe nausijetara bialdu ebazan. Oxford'eko ikastetxian egon zan Emunda gastia eta geroxe Paris'era zuzendu zan bere anai bategaz. Astian iru bidaŕ soin-ganian imiñi egijela-ta, zuŕdatz gogoŕak emon eutsezan euren ameak.

Paris'ko Ikastetxe nagusijan ikasi ebazan gaste bati dagokijozan elerti-gayak -eta. England'en ezeguan aren bestekorik eleŕti-gayetan; oŕegatik Oxford'eko ikastetxian irakasletzat autu eben. Sei urtien egon zan irakasle eta bere ikasliak ziran gasterik onenak eta garbijenak. Egunero jaupea entzun-eragiten eutsoen.

Aren irakastolatik uŕten ziran England osua betetu eben gixon jakintsu ta doniak. Emunda, baña ezeguan pozik. Jaupari ixan nayak mintzen eutson baŕena. Beraz eskari ori eskatu eutson Gotzañari. Beriala jaupari-egin eben eta Salisbury'ko eŕtxadonean kanonigu autu eben. Antxe emon ebezan erakuspiderik edeŕenak.

Alde gustijetara zabaldu zan gaste aren entzutia. England'eko bakaldunak, be, berari eskatuten eutsezan aolku gustijak. Olan, ba, Doipurubarengana be eldu zan Emunda'ren ixena.

Ori zala-ta Gurutze-Gudak atzaldu-egijazan France'ra bialdu eben. Onura aundijak ekaŕi eutsozan Doibatza'ri aren zabalgundiak. France'ko biztanle geyenak euŕez lagundu ertsen Gurutze-Guda areik auŕera eruateko.

Aldi aretan il zan Cantorbery'ko gongotzaña ta engalandaŕak eskatu eutsen IX 'gaŕen Gergori Doipuruba'ri emon egijela jaupari zerutaŕ a euren Congo'tzaintzat. Olan, ba, England'ko gotzain eta gongotzaŕen buru ixango zan, ba.

Jaŕleku a geyegitzat eukon Emunda'k, baña Doipurubaren agindubak ziatz betetuten ebazan ezkero, onaŕtu eban. Cantorbery'ko gongotzaintza aretan jazaŕpen aundijak ikusi ebazan. Ango zaldunak-eta gixon biuŕ ta zitelak ziran. Euren asmo gustijak egin biaŕ ixaten ebezan jauparijak-eta, baña Emunda'k ezeutsen laketu olakorik.

Eleiz-gixonak eurek, be, gongotzaña 'ren aurka jaŕi ziran. Oŕegatik France 'ra baztertu zan, eŕitaŕ eta jauparijen aŕteko buŕukaldijak ezebazalako ikusi nai. France'ko bakaldun Kodobika deuna zan eta sendi gustijagaz uŕten yakon bidera aŕera maŕekoŕa egin gura eutsan, ba, gongotzain deun ari. Pontigny'ko lekaidetxian geratu zan. Bakaldun deun arek aiubat ikeŕtaldi egiten eutsozan, Jaungoikua'tzaz itz-egitia, ba, atsegin yaken.

Lekaidetxe aretan egualarik gexotu zan eta ondo osatu baño len Soissy'ko lekaidetxera eruan nai ixan ebalako-edo, il -agiñean geratu zan. Pozpozik aŕtu ebazan ikuŕtonak eta Doipuruba'ren onespena eta France'ko eŕitxu aretan betiko atsedena iritxi eban.

Azi eta ugaritu...

Neure soloko patatak batzen somatu edo ataŕpau neban gixon a.

—Matai-esan neutsan-neure soloko patatakanako maŕasun oŕek poztu narua, baña osuan eztagiket onetsi. Eta Goiko Jaun onak ba-daki eztala zikoiztasunaŕen, eskrupulubak daukozadalako. Egin eta benetan neure patata onek edeŕto etoŕko yakoz zeure urdalari, berebixikuak dira -ta; baña zeure arimiari etxakoz ondo ezaŕiko. Etzenduban aiztuko Goikua'ren agindubа, iñorenik eztala aŕtu biaŕ. Gixon arek besuak zabaldu ebezan.

—Ez jauna, eztot aiztu olakorik, baña zer egin daiket? Auzotaŕak gara. Ondo baño obeto ezagututen dozuz neure luŕak. Luŕ txaŕ ta lioŕak. Neure sendija, be, ezagutzen dozu. Asko gara! Eta urte terdiz urte terdira seme bat dakaŕst emaziak! Txaŕto bixi gara, ¿bai? eta zeure patatak gozo ta ugarijak dira...

—Tira, ba—erantzun neutsan—. ¡Zer egingo yuaguk! Eruan egixak patatok.

Matai'k jaso eban zarana edo otaŕa ta aldendu zan.

Uŕengo baten, be, baŕdin somatu neban. Soloko patata gustijak ataŕpetan eustazan.

—Matai—esan neutsan—zeure umetxubak gosetijak dira gero!

—Zu zara pertsonea, zu! Zu lango bategaz uleŕtuko litxake txeŕena bera be. Gustija ontzat aŕtzen dozu-ta. Bai egiz gosetijak dirana. Baña len baño txaŕtuago nago neure anai baten bost semiak, be, etxera ekaŕi dodazalako. Bueno zeure baimenagaz...

Lepuan jaŕi otzarea ta juan zan. Iru edo lau bidaŕ geyagotan, be, itxuli zan neure soloko patatan bila. Egun batean gurdijaz etoŕi zan. Baŕuko amoŕubari azke itxi neutsan.

—Geyegi dozu ori, geyegi! ¿Neure soloko patata gustijak noren eskubidiaz daruazuz?

—¿Noren eskubidiaz?—erantzun eustan. Eztozu jakingo, baña erki edo probintzi gustijan bananduta egozan amabost lobak etxera ekaŕi dodaz. Sendi ugarijen poztasuna daukot neure inguruban. Pozik bixi gara gustijak alkaŕen onduan gagozala-ta. Goiko Jaunak onetsi daruaz sendi ugarijak! Eta atzo, be, elexa-auŕian aurkitu nebazan adizkidiai dei-egin neutsen bazkari edeŕ bat emongo dautsedala -ta. Aundikiro ez, baña tira zeozer emongo dautse. Patata oneik eta zeure olotegitik eruango dotazan olosko batzuk. ¡Neure etxe ondora etoŕiko ba'zintz. ¡Dantzan be egingo dogu! Jente asko, gustijak onak. ¡Etxe zabala neure etxia!

Oŕuz erantzun neutsan:

Ara biaŕ-ixana gauza eŕukijoŕa yat. Seme asko daukozuz; luŕ elkoŕak. Zeure semiai jaten emoteko patatak biaŕ dozuz ta an edo oŕ aŕtu biaŕ. Baña zeure loba gustijai dei-egin eta adizkidiai, be, bazkarijak emotia ezta bidezkua. Etxe ugari bat gauza ona dozu, baña bestien lepotik janten emotia ezteritxat egoki-egokija.

¿Zegatik gomutau nazan jazokun onetzaz? Mussolini'ren atzalpenak irakuŕi dodaz France'ko izpaŕingi baten. Duce dalakuak diñuanez Itali'ko luŕ gustijak eztira emonkoŕak. Italiaŕak geyegi dirala diño. Beste luŕ batzuk biaŕ ei-dabez. Bai ba italiaŕak sei ume egingo leukiez urtian...

Baña gomutan daukot—baita zubok be, arako gobernubaren sarijak-eta semerik geyen eukonarentzat. Sendi ugarijai onen beste, seme asko eukozan aŕari alako sarijak. Italia'n tokirik ezeguanian ziran sariketa oŕeik. Eta orain...

Ara zegatik gomutau nazan neure bestaldeko Matai igintzuaz.

ERRIJETATIK

ARETXABALETA

MIKEL-DEUN EGUNA.—Euzko-Alderdi Jeltzaearen zaindari dan Mikel Deun eguna ospetzeko, jai edeŕ eta begiko batzuk, eratu ditu Aretxabaleta'ko, Euzko -Alderdi ta Batzokia'k.

Iñaki Deuna eta Mikel-Deun egunak gomutagaŕiak ditugu. Iñaki eguna ondo ederto ospatu gendun, eta Mikel-Deun eguna, obeto ospatuko degun ustearа gagoz. Egingo degun guztia, gutxi izango da gure Zaindari-gongotzon onen omenez. Mikel-Deuna izan zan aldi batez (eta gauŕ be bai oraindik) Napaŕua ta Euzkadi osoko zaindari zerutaŕa. Euzkadi biotz-biotzean dauko, euskotaŕak bere zaindari-etxea Aralar tontoŕean. Amaika euskotaŕ zintzo igaroko dira egun ortan Aralaŕ'etik. Guk emendixek egingo dautzagu Aguŕ Mikel-doneari.

1909'ko Uŕila-10'gra. Euzko - Alderdi Jeltzaliak bere zaindaritzat aŕtu zuben Euzkadi beraka zijuan, bai zinismenean eta euzko-zaletasunean, eta Mikel'eri, erkeñi zioten Abeŕi au euzkotaŕak. Euzko -Alderdi Jeltzaliak egunik latzenak orduantxe igaroko zeban, esatiaz gezur aundirik ez neuke esango. Gotzai eta abadiak alde batetik, bestetik fariseo esku-garbiak (asal-utzak eta mamirik eztaukenak), danak Euzko-Alderdi Jeltzalia nundik apurtuko ebiltzen. Orduan biar-biaŕeko, jatoŕ zaindari gogoŕ eta altzu bat beaŕ zan. Nor Mikel-Deuna baxen gogoŕ eta altzu? Mikel emon eutson, ba, Urtzi'k bere zaindari. Euzkotaŕontzat, beti izanda zaindari berezia Aralar'ko Mikel. Gauŕ bertan, be, orixe degu eta izango degu auŕerakuan ere. "Mikel buru ebela aingeru taldeak betiko azpiratu zituan Luzifer lagundia." Guk ere, etsai asko degu eta onetxekin jaŕaituko dcgu etsaiak menperatzen.

Jaiak bigikoak izango dirala esan dot, eta ala izango dira:

Goizeko, 8 ta erdietan.—Jaupa izangoda eleiz nagusian abeŕtzalien-izenean. Gero, pelota-jokaldi edeŕa, juan dan urteko irugaŕen malan, txapeldun azaldu ziran "moŕosko - mutil" oiekn: Lizaŕalde'taŕ Paul-Gabilondo'taŕ Gotzon, Alberdi anaiak ta abar, jokaldi-bikaña izangoda.

Gero auŕesku ta abaŕ. Amabitan barkari amaitartekoa Koruetan, eta aŕatsaldian eŕomeri garbi edeŕa. Oar bat. Euzko -abeŕtzaleak, Mikel-Deuna ospatzeko degu egun au. Dantza lotuakin nazten diran abeŕtzaliak, eztabe ba, jai ori ondo igaroko. Euzko-usaiñeko dantza garbiak bear ditugu. Zintzo, ta garbi beti dagok, onela ezan gezake gure gogai-oŕi:

Mikel guria
zugana gaude jaŕia
zaindu zazu bada betik
gure Euzkera ta Euzkal-eŕia.
(Andarto)

(OAŔTXO BAT). Entzun.—Azken orduan esaten daue, nola izango diran, Txifindularien laizterketa, Aretxabaleta'ko Euzko-Kiroltzaleak eratuta, ara emen, laizterketa onen ibilerak: Aretaletatik -Ezkoriatza'ra (biratu) Ezkoriatza, Aŕasate, emen sartuera erdiko kaletik urtenik Zarugalde bidetik, Ezkoriatza'ra ta azkenik uri ontara emen mugaturik. Guztiz dira 20 kilometro.

Sariak dira: Lelengoak, 15 lauŕleko; bigaŕena, 10; irugaŕenak, 5, eta lelengoko Euzko-Alderdin Jeltzale danak izango du gañera 10 lauŕleko, abeŕtzale dan aldeik. Gaztеari ere emango zaio euren 4 miñutuko gel aldia irte-eren.

Gaztetxo onentzako baita ere izangodira beste sari-batzuk ere.

Jaupa nagusi bukaeran, izangoda pelota jokaldia, ara emen jokalariak:

Lizaŕaldek eta Gabilondo-Alberdi anai -ari eta Laŕañagaren aurka. Poztu bada gaztiak, gure Euzko-Kirol - Batzoŕdeak zaletasun guztiakio, antolatu diogulako jai aberkoi edeŕ onek. (Nere zorionak danori.)

ELGOIBAR

"MAÑARIKO.'RI.—Juan dan astean irakuŕi nuan "Ekin" izpaŕingian aurten sekulako piku urte zendutela ta ni emen egon naiz Beitia'taŕ Pirmin bere aeroplanua pikuz kargatuta noiz etoŕiko ziote zan, baña utz ixan ere ez nuan besterik meresi. Urkiola'ko Andoni Deuna ikertuaz or igaro genduan egunaz ere ez bainuan ezer idatzi ta onelako eskeŕ gabekuai orixe egin biaŕ zayo. Berandu bada ere anei ta anei eskeŕ zuri aizpa ta amari ain ondo ta maitekoŕ aŕtu gindualako.

"Ogoñope" idazleak baldin irakuŕi bazuan laster dezu or Urkiola'ko peŕitxikuen aitzekian "Lauaxeta"-rentzako piku -eske, baño kontuz ibili ezpanak eŕe-gabe.

AGUŔTU.—Emen izan ditugu antziñako idazle Ugalde'taŕ Peli "Udala-mendi" Aŕasate'ra ta "Atxukale" ta "Garbiñe" anai-aŕebak, motrikuaŕak.

"LAUAXETA"-RI. --- Berandu bada ere aŕtu nere zorionak "Aŕats-Beran" oleŕkiak ain egoki ta gozo egin dituzulako. Nere esku-aŕtean det idaztitxo au ta oso atsegin zait. Jaŕaitu auŕera ere onelaxe ta ontarako Goiko Jaunak eman deizula urte askotarako osasuna abeŕi-aldez lanari jaŕaitu dezaiozun.

MIRENTXU.

Uaŕa.—¡Ene bada! Ilta zintzalakoan egon naz, oŕen beste denpora ixilik egin dozu, ba! ¿Bixi zara ezta, bixi? Mañari 'ko piku gozuak jatera juan biaŕko gara, goxalde garbi ta garotsu oneitan, ba, piku batzuk, atsegingaŕi dira. Neure oleŕki idaztia dala-ta egin daustazun zorion-aguŕa, biotzez jasoten dot. Gauza aundirik ezta, geyagorik egingo dogu. Baña dana dala, zeure aguŕak poztu nau.

Lasteŕ ikertaldiren bat egingo dautzut, ia Elgoibar'taŕa nauzu-ta. Jente on-onak bixi diran eŕitxu maite oŕetan! Oraingo onegaz ez zaite ixildu gero. Batzutan "Aixerixa,"k eta bestietan zuk, astean-astean idatzi egizue. Aguŕ Jel-baitan.—Lauaxeta.